

## ZIURTAGIRIA

### Tokiko Gobernu Batzarraren erabagia

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2024-03-11(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

#### 4.- BERMEOKO KULTUR TALDE, ELKARTE ETA PERTSONA FISIKOEI URTEKO KULTUR ETA JAI EKIMENAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZEN 2024. URTEKO DEIALDIAK ZABALTZEA ONARTZEA.

##### Xedea

Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen 2024. urteko deialdiak zabaltzea onartzea.

##### Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea erabaki dau. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

Bigarrena: 2023ko martxoaren 31ko Osoko Bilkurak, Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen deialdiaren oinarri zehatzak onartu dauz eta erabaki honen iragarkia 2023ko apirilaren 28ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da

Hirugarrena: 2023ko abuztuaren 2ko Osoko Bilkuran, Bermeoko kultur talde eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzen balorazio batzordearen eraketaren aldaketa onartu da eta erabaki honen iragarkia 2024ko otsailaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

Laugarrena: 2024ko otsailaren 29an, Kontuhartzaile andreak aldeko fiskalizazio txostena egin du.

##### Argudioak

Lehenengoa: Gastuek beharrezko kontsignazioak dauzkate (RC 2024/000176, RC 2024/000177 eta RC 2024/000178)

Bigarrena: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.



Hirugarrena: Dirulaguntzen deialdiak onartzeko eta ebazteko ahalmena Alkatetzarena da baina 2024ko otsailaren 28ko 926 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu da.

**Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen 2024. urteko deialdiak zabaltzea onartzea, eranskinetan jasotako eran.

BIGARRENA: Deialdi hauen publizitatea Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bideratzeko agindua ematea Kultura eta Hezkuntza Sailari.

HIRUGARRENA: Deialdi hauen publizitatea Bermeoko Udalaren web gunean txertatzeko agindua ematea ATB Sailari.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespenaren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikuluaaren arabera), Nadia Nemeh Shomaly alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

*Orri-oinean sinatzailea eta data*

|                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                 |
|------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  | Sinadurea eta data                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                                                                 |
|                                                                                    | JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 12/03/2024<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 12/03/2024<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2024 10:22:54 | EXPEDIENTE :: 2024IDA_ERA_0108<br>Data: 20/02/2024<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |

